KILOMETROAK 2017

www.kilometroak.eus

LEKAIXOKA!



Txantxiku Ikastola

ikastolenelkartea

irailak 24 OÑATI

FINKAPEN SOLUZIOAK



PLASTIKOAK

ERREKA

DIBERTSIFIKAZIOA
ETA PERTSONEKIKO
KONPROMISOA
DIRA GURE
ETORKIZUNEKO
BERMEA



AUTOMATISMOAK

Erreka Taldea
Ibarreta Auzoa z/g
20577 Antzuola. Gipuzkoa

T. 943 786 150
F. 943 787 109
info@erreka.com

www.erreka.com

ATE AUTOMATIKOAK

aurkibidea

6 TXANTXIKU IKASTOLA

Txantxiku Ikastolaren lehen hastapenak eta gaur arteko ibilbidea. Bost hamarkada hauetan izandako aldaketak, berrikuntzak, egitasmo pedagogiko berriak. 80ko hamarkadaren garrantzia,90eko hamarkadako erronkak eta 2016-2017 ikasturtean ezarritako Ixutu proiektua edo Konfiantzaren Pedagogia besteak beste.

AUZOLANA 8

Parekidetasuna, irekitasuna eta aniztasunarekin batera, auzolana da Kilometroak 2017ko ezaugarri nagusia. Auzolanaren garrantzia dago Lekaixoka berbaren oinarrian. Hortik, auzolanetik, sortu zelako duela 50 urte Txantxiku Ikastola bera eta auzolanaren bidetik hazi delako urte guzti hauetan.



10 URTEA IRUDITAN

Ospakizun nagusia irailaren 24an bada ere, urtebete darama Txantxiku Ikastolak Lekaixoka. Orotariko ekintzak izan dira urtean zehar: lekukoa jasotzea, leloaren aurkezpena, Berdintxiketan, Bideokliparen aurkezpena, Artxipielagoa ikuskizuna, Mendimetroak,Supituki, Bera- Bera eta Aularen arteko eskubaloi norgehiagoka...

BATZORDEAK 12

Lanaren banaketa, batzordeka antolatutako urte osoko lana, auzolana. Kilometroak jaiak antolatzeak dakarren lana kontuan izanda, 16 batzorde osatu dira. Aipaturiko batzorde bakoitzak, esparru ezberdin batean lan egin du bai urtean zehar bai egunari begira.

16 MENDIMETROAK

Kilometroak eta mendizaletasuna uztartzen dituen ekimena. Ekimen berri hau lehen aldiz abian jarri da gazteen artean mendizaletasuna sustatzeko helburuarekin.. Maiatzaren 21ean Gipuzkoako hainbat mendik beste horrenbeste Ikastolen bisita izan zuten.

IBILBIDEA-EGITARAUA 20

5,8 kilometrotako ibilbidea. 1989ko urriaren 1ean egin zen ibilbide bera baina kontrako noranzkoan. Polita eta atsegina, denentzako modukoa. Herriko plazatik abiatuta paisaia zoragarrietan barrena Aloña mendiaren magalean murgiltzen den ibilbide erraza.

24 TRAFIKOA ETA APARKALEKUAK

Oñatik sarrera bakarra izango du egun horretan: Elorregitik. 4.600 ibilgailu hartzeko zortzi aparkaleku gune egongo dira. Aparkaleku hauek herri ingurutik hasi eta Arrasaterako norabidean hainbat gunetan izango dira. Aparkalekuetatik herrigunera heltzeko autobus lanzaderak jarriko dira.

GUNEAK 27

Lau gunetan banatutako ibilbidea izango da irailaren 24koa: Ikastola, San Martin, Asentzio eta Berezao. Haur, gazte zein helduei zuzendutako egitarau zabala. Goizeko 9:30ean hasi eta 19:00ak arte luzatuko den programa.

CARTONAJES ARREGI

Tel.: 943 78 05 09 • OÑATI

GERETA
ARDOAK
1878-tik

Tel.: 943 78 00 59 •

sarrera

Malen Ugarte
Kilometroak 2017ko koordinatzailea

Nork esango zigun guri egun bakar baterako prestaketak halako lana suposatuko zigunik? Zer esan eta nola esan hitz gutxitan aurten Txantxiku ikastolan bizitakoaz eta ikasitakoaz. Abixadan pasatu zaigu urtea, eta abixadan dator hilaren 24a: denbora luzean itxarondako eguna. 28 urte eta gero, iazko udazkenean lekukoa herriko plazara heldu zen momentutik egundaino egindako lana ez da ez izan makala.

Ikastolan ixututako iskanbila berehala bilakatu zen ilusio eta motibaziorako txinparta guraso, langile, lagun eta herritarrengan, eta ezer miresgarria izan bada bide honetan, horixe bera izan da denetan miresgarriena. Urte osoko parte hartzea inplikatua eta gogotsua izan da, lan guztia interes interes komun baten alde aritu da, hezkuntza komunitatearekiko konpromisoz

Hamasei lan talde eta ehundaka lagun musutruk egunean ez ezik urtean zehar hezkuntza komunitatean eta inguruan arrastoa utzi nahian lanean ibili direnak, besteak beste, arazoak gizarteratu eta kolektibizatzeko, eta inoiz baino gehiago elkarlana sustatu beharra dagoela ere ozen aldarrikatzeko. Auzolanean lan egiteko moduaren garrantziaz jabetu gara eta beste askoren lekuan jartzeko ere balio izan digu; izan ere, askotan ezagutzen ez diren errealitate asko ez baitira existitzen ikusarazten diren arte.

Aldapan gora eta aldapan behera ibili gara ikasi eta esperimentatzen. Hurrengo urtean berriz ere jaia antolatzea egokituko balitzaigu badakigu gauzak beste modu batera, eta akaso hobeto ,egingo genituzkeela, baina tira, zerbaitetan zerotik hasi eta jarduteko aukera izatea ere gauza handia (izan) da!

Orain, urte osoko lana egun eder batean borobildu eta gozatzea besterik ez zaigu gelditzen.

Zigor Ibarzabal
Txantxiku Ikastolako zuzendaria

Emozio eta sentimenduz beteriko urtea bizi izan dugu ikastolan: urduritasuna, poztasuna, ardura, errespetua, konpromisoa, harrotasuna, nekea, indarra... da egunerokotasunean gure barruan sentitzen duguna. Gipuzkoako ikastolen jai handia antolatzeko herritar eta ikastolako komunitateak eskainitako babesa eta emandako bultzada izan dira emoziorik sakonenak. Begiak malkoz bete izan zaizkigu maiz; zenbat ekintza, zenbat oroitzapen, zenbat talde eta norbanako ikastola laguntzen, hunkitzeko moduko momentu ugari dudarik gabe. Harrotasunez baina harrokeria gabe esan dezakegu ikastola maitatua dela Oñatin.

Ekimen guztien atzetik boluntario taldeak egon dira, pertsonak alegia. Era batera edo bestera, interes pertsonalik gabe, beraien aletxoa jarri eta gure familia honi daukaten hoberena eskaini diotenak. Zenbat ezagun, zenbat lagun zahar eta berri; guztiak Kilometroen alde lanean fin. Horixe baita auzolanaren funtsa: guztion ekarpenen bidez aberasten den lana, harremana, lagun taldea, giroa. Bihotzez eskerrik beroenak horiei guztiei.

Azken txanpan murgilduta gaude dagoeneko, jaiaren gertutasunak sortzen dituen nerbio eta zirrara bereziak gorputzean gora eta behera antzematen ditugu. Ondo egindako lanaren lasaitasunak baretzen gaitu, urte guztian zehar izandako jarrera eta grina mantentzeko momentua bizi dugu. Esna amets egiten dugunean, egun arrakastatsua irudikatzen dugu; milaka pertsona gure herri ederrak eskaintzen dituen txoko eta bestelakoez gozatzen ikusten ditugu. Gure lekaixoa inoiz baino ozenago plazaratu behar dugu: zatozte Euskal Herritarrok, zatozte euskaldunok, zatozte ikastola zaleok, zatozte lagunok, zatozte guztiok eta zatozte lekaixoka! Oñatiarrok zain izango gaituzue ongi etorri beroa eskaini eta primerako euskal giroan egun pasa egiteko.

Besterik gabe, irailak 24a arte. Mila esker!

italde

TALDE ERAIKITZAILE-SUSTATZAILEA
GRUPO INMOBILIARIO

Tel.: 943 78 27 07 • OÑATI

ERLE TAILERRA S.L.

LEKUZ ALDATZEN GARA! ¡NOS TRASLADAMOS!

AUTOS IBEL

C/ Torrebaso Pasealekua 16,
ESKORIATZA, 20540 (Gipuzkoa)

943 71 00 95

¡Te dejamos coche de sustitución
o te recogemos el coche!

Aitor Guridi
Txantxiku Ikastolako lehendakaria

Bergaran lekukoa hartu genuenean hasi zen begi bistan ikusten den lana. Hala ere, isilean lanean jardun izan dugu iaztik. Urtea, polita bezain gogorra izaten ari da, bakoitzak bere eguneroko jarduerez gain, KILOMETROEN inguruan baikabiltza lanean.

Euskaldunok, horren gustuko dugun mendi irteera edo espedizio bat bezalakoxea izaten ari da hau guztia. Denetarik izan dugu; aldapa gogorragoak, ez horrenbestekoak, atsedenaldiak, mokadutxo bat egiteko tarteak, erritmo biziak edo mantsoagoak... baina betiere aurrera, auzolanean elkarri lagunduz.

Gure LEKAIXOAren oihartzuna txoko guztietara zabalduko da irailaren 24an, tontorrera heltzen garenean. Zalantzarik gabe, mendian bezala, azken aldats neketsuena gelditzen zaigu oraindik. Besteak beste, eguraldiarekin zortea izateko esperantzari eutsiz goaz, gure egitekoak ahalik eta hoberen eginak egongo direnaren konfiantzaz eta gailurra lortzeko erritmo onean gabiltzala sinistuz. Hau horrela izanik, KILOMETRO egunera indarrez helduko garela ez daukat dudarik.

Espedizioetan, gorenera heldu ondoren, jaitsierari garrantzia handia ematen zaio eta guk ere kontuan izan beharreko puntua dela uste dut. Jakina da, behin lekukoa pasatu ondoren dena bukatu dela uste dugula. Hala ere, oraindik egitekoak gelditzen dira eta gauzak ondo amaitzeak ere badu bere garrantzia. Hasi ginen modu berean, isileko lanean amaituko dugun arren, izaten ari garen giro ona eta auzolaneko ispiritua aurrerago etorriko diren proiektuetarako mantentzea gustatuko litzaidake.

Bukatzeko, bidaia honetan, modu batera edo bestera laguntzen diharduzuen guztioi bihotzez eskerrak eman eta denoi, irailaren 24an Oñatira etortzeko gonbitea luzatzea besterik ez zait gelditzen. Gurekin, antolatu dugun jaiaz, gure herriaz eta ikastolaz LEKAIXOKA goza dezagun!

Zabaldu mezua eta ordurarte.

Nekane Artola
Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakaria

40 urte eta gero zer?

Irailaren 24an Oñatin 40 urteko ibilbidea ospatuko dugu Gipuzkoako Ikastolok. 40 urte ibilian euskararen alde, Ikastolen alde, hezkuntza sistema propioaren alde. Batzuetan malda gora, tarteka korrika eroso, zenbaitetan arnasestuka, baina badakigu ibilian egiten dela bidea eta horretan jarraituko dugu urte luzez. Izan ere, garaiak, beharrak eta helburuak aldatu dira eta erronka ugari ditugu aurretik.

40 urteotan Gipuzkoako Ikastolok Kilometroak antolatu dugu urtero, hutsik egin gabe. 40 urteotan poza, malko ugari eta dozenaka emozio. 40 urte auzolana eta elkarlanaren jai erraldoi hau antolatzen. 40 urteotan euskal jendartearen elkartasuna jaso dugu eta gure aldarrikapenekin bat egin dute milaka euskal herritarrek. 40 urtez euskal kulturaren erakusleiho izan gara. 40 urteotan Ikastolak eraldatuz joan dira, garai berrietara egokituz, pedagogia berritzailean aitzindaritza eramanez. 40 urteotan jendartea aldatu egin da eta gure jaiak aldaketa horiekin bat egin du.

Baina uste dugu badela garaia gure jaiaren inguruan hausnarketa egiteko, izan ere, jendartearen aldaketak aldarrikapenari eta parte hartzeari tarte txikiagoa utzi die eta kontsumoari handiagoa. Gure erronka, beraz, gure ezaugarriekin bat egingo duen jaia antolatzea. Eta nola egin hori? Jai eredu berria eztabaidatu eta diseinatuko duen prozesuari bide emanez, Ikastolen komunitate osoaren parte hartzea bermatuz.

40 urteotako esperientzia, parte hartzea eta elkartasuna baliatuz etorkizunari begira jarriko den jai eredu bat da Gipuzkoako Ikastolok mahai gainean jarri nahi duguna. Ikastola ereduarekin bat egingo duena: parte hartzailea, euskalduna, herritarra, parekidea, berritzailea, ingurugiroarekin errespetuz jokatuko duena... Ikasturte berri honetan badugu zeregina eta ilusioz ekingo diogu.

Lekaixoa bota dugu, parte hartu, beraz!

EGUZKIALDE
Enbalajeak

EGURREZKO KAXAK
OINARRIAK
KAIOLAK
PALETAK

Goribar auzoa, 16 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: **943 78 06 54** • E-posta: eguzkijuan@telefonica.net

Etxe-Aundi
HOTEL RESTAURANTE
Torre auzoa, 19
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 19 53
943 78 32 90
www.etxeaundi.com

Txantxiku Ikastola

Txantxiku Ikastola, pedagogian aitzindari: mende erdia herria euskalduntzen eta hezitzen

1967ko irailaren 18a zen, San Migel kooperatiban kokatutako gelan, 3 eta 4 urteko 28 ikasleri eskolak ematen hasi zirenean. Eli Igarzabal zen irakaslea, eta aurreko egunean, On Jose Luis Arrazolak bedeinkatuta zegoen gela hura. 50 urte igaro dira ordutik, 50 urte, Oñatiko herriarentzat hain emankorra izan den bizitza esperientzia martxan ipini zenetik. Bidean daude hainbat ahalegin, amets, lan eta lorpen.

1980ko hamarkada indarberrituta hasi zuen Ikastolak eta bere historian ezinbesteko mugarri bilakatu diren hiru une bizi izan zituen hamarkada horretan: bata, kooperatiba bihurtzea; bestea, ikasle eta langile guztiak batuko zituen behin betiko gunea eskuratzea; eta hirugarrena, 2 urtetik 18 urtera bitarteko hezkuntza eskaintza osoa bermatzea.

Izan ere, 1980ko maiatzaren 12an kooperatiba integrala bilakatuta, sorreratik ordura arte aurrera egin ahal izateko funtsezkoa izan zen elizaren babespetik irten zen Ikastola. Kontseilu Errektorea sei gurasok, bi laguntzailek eta lau langilek osatu zuten. Eta horrekin batera, izena aldatu zioten Ikastolari. Aurrerantzean, Txantxiku Ikastola izango zen.

1988-1989 ikasturtea zen Txantxiku Ikastola Batxikergoko ikasketak eskaintzen hasi zenean. Etorkizuneko apustua egin zuen ikastolak, helburua baitzen, unibertsitate arteko ikasketa guztiak eman ahal izatea. Une zaila eta erabakigarria izan zen: Ikastolaren helburua zen, ikasleari 2 urte dituenetik 18 urtera bitartean euskal irakaskuntza D ereduan eskaintzea. Euskal Eskola Publikoaren Legea bidean zegoen, PSE Jaurlaritzako gobernuan... Eztabaida gogor baina sanoak egin ziren Ikastolaren baitan, langileen artean eta gurasoekin, eta azkenean, aurrera egiteko erabakia hartu zen eta BBB/UBI eskaintzeko baimena lortu zen. 25 ikaslerekin abiatu zen proiektu hura.

BBB/UBI eskaintzeak ekarri zuen egoera ekonomiko larriari aurre egiteko, Kilometroak 89 antolatzeko beharra ikusi zen. 1988ko azaroaren 31n, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak erabaki zuen, hurrengo urtean Kilometroak Oñatin ospatuko zela.

1989ko Kilometroak arrakastatsuari esker eta 80ko hamarkadako erronkak gaindituta, 90eko hamarkada oso indartsu hasi zuen Ikastolak. Euskal Eskola Publikoaren Legeak eta LOGSEk ikastolaren proiektuaren oinarriak mugitu bazituen ere, Txantxiku Ikastola erabat sendotu zen eta ikaslea erdigunean jarrita, kide guztiek norabide berean, hezkuntza kooperatiba integralaren aldeko pauso irmoak eman zituzten. Emaitzak begi bistan daude: jaiotze tasa txikitu bazen ere, ikastolak matrikulazio datu onak izaten jarraitu zuen.

Egitasmo pedagogiko berriak ezartzen jarraitzen du Txantxiku Ikastolak

90eko hamarkada erronkaz betea etorri zen eta Txantxiku Ikastolak sorreratik helburu izan dituen pedagogia berritzaileak sortzeko eta garatzeko ildoari jarraitu zion irmo. Hala, Ikastolen Elkarteak iraganean bultzatutako Axelko, Otsoko eta Belekori lekukoa hartu zieten Urtxintxak Haur Hezkuntzan, Txanelak Lehen Hezkuntzan eta Ostadarrek Bigarren Hezkuntzan. Baita, orain inplementatzen ari den EKIk eta beste batzuk ere. EKI integrazioaren pedagogian oinarritutako puntako material didaktikoa da. Pertsona konpetenteak hezi eta horiei beharrezko dituzten baliabideak eskaintzea helburu duena. Ezin aipatu barik utzi Txantxiku Ikastolak beti izan duen hizkuntzen aldeko jarrera. Hala, aspaldi, eman zuen pausoa helebitasunera.

1989ko Kilometroak arrakastatsuaren ostean, 28 urte geroago, Txantxiku Ikastolako hezkuntza komunitateak Kilometroak antolatzeko ardura du berriz ere. Eta ez da edozein momentutan iritsi, ez. Iritsi

ZUBIA
TECNOLOGIA
TUBULAR
NEMESIO ZUBIA S.A.
Zubillaga auzoa 74 • 20560 Oñati • Tel.: 943 78 14 10
www.zubia.biz • zubia@zubia.biz

ogizun
ogigourmet365
Tel.: 943 78 24 13 • OÑATI

da, Txantxiku Ikastolak 50 urte betetzen dituenean. Ikasturtea indartsu, motibatuta eta berritzeko gogoz hasi du ikastolak eta horrela jarraitzen du, indarberriturik, egitasmo pedagogiko berriak ezartzen eta eraldaketa arkitektoniko esanguratsu bat gauzatzen.

Hain zuzen ere, 2016-2017 ikasturtean, Txantxiku Ikastolako Haur Hezkuntzako etapa proiektu berritzaile batean murgildu da. Ixutu proiektua edo konfiantzaren Pedagogia. Pedagogia honek lau helburu nagusi ditu. Haurra norbanako bezala garatzea; adin ezberdinetako haurrak harremanetan ipintzea, elkarrekiko interakzioan batzuk besteengandik ikas dezaten; espazioaren antolaketak umearen garapen integralean duen garrantziaz jabetzea eta ikastolan familiaren presentzia areagotzea.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzara oraindik zabaldu ez bada ere, Ikastolaren asmoa da hurrengo urteetan konfiantzaren Pedagogia etapa hauetara zabaltzen joatea.

Bestetik, gelako giroa hobetu eta gatazkak saihestu guran, Golden5 eta KIVA proiektuak ezartzeko urratsak ematen ari da Ikastola.

Ikastolak berrikuntza pedagogikoari lotuta egon dira betidanik eta horretarako baliabideak nonahi aurkitu izan dituzte: hezkuntza komunitatean, beste ikastolekin elkartasunean... Askotan, berrikuntza pedagogikoak bat egiten du aldaketa arkitektonikoarekin eta honelakoak finantzatu ahal izateko ari dira Gipuzkoako Ikastolak Kilometroak jaia antolatzen azken 40 urte baino gehiagotan. Aurten, Oñatiri egokitu zaio. Irailaren 24a da, egun handia!

89ko kilometroakeko bertso saioa

Goiko argazkia: Ikastolako patioan (1975).
Beheko bi argazkiak: Gela nagusian (2016)

Auzolanean, Lekaixoka!

Irekitasuna, parekidetasuna, aniztasuna, eta auzolana dira Kilometroak 2017ren lan ildo nagusiak. Ikasturtean zehar bereziki landu den balioa izan da auzolanarena, herritarrak elkarrekin lanean ipini dituena.

Lekaixoka! Horixe da irailaren 24an Oñatin ospatuko den Kilometroak 2017ren leloa. Lekaixo berbak oihua, txilioa, irrintzia, deiadarra esan gura du. Aspaldiko euskaldunek erabiltzen zuten deia, irrintzia eta oñatiarrez lekaixua, abisuak pasatzeko, arazoak komunikatzeko, zein urrun zeudenei hurbiltasuna adierazteko. Oinarrian, gure arbasoengandik jaso dugun herri ohitura, irrintzi, doinu eta berbaren komunikatzaile berriak gara.

Lekaixoka berbaren oinarrian, auzolanaren ideia dago. Hortik, auzolanetik sortu zelako duela 50 urte Txantxiku Ikastola bera ere eta auzolanaren bidetik hazi delako ikastola urte hauetan guztietan.

Auzolanaren ideia irudikatzen du Lekaixoka leloak eta Kilometroak 2017ko irudia, lekaixoa bera da. Irrintziaren, oihuaren errepresentazioa. Formak, gainera, Oñatiko mendi gailurreria ere errepresentatzen du.

Oñatin ospatuko den Kilometroak 2017ko lantaldea, duela ia bi urte hasi zen hilabete honetako 24an egingo den festa handiaren lan-ildoa lantzen. Hainbat bilera eta elkarrizketaren ostean, ikastolaren ibilbidea ondoen irudikatzen zuen berba eta gainera aurrera begira ere landu gura zen balioa auzolanarena zela erabaki zuten. Zergatik? Batetik, antolatzaileen esanetan, gazteen artean galtzen dabilen lan egiteko modu bat delako eta beraz, interesgarri ikusten dutelako belaunaldi berriei balore hori elkarbanatu eta transmititzea, horrelako jai bat biziko duten heinean ere, auzolana praktikan jartzeko aukera izango dutelako. Bestetik, garatu behar zen proiektua auzolanean eraikitzea ezinbestekoa zelako: hezkuntza



komunitate barruan egin den lanetik abiatuta, herriko beste eragileekin lankidetza lortzea helburu, guztion partaidetzaz euskararen eta herriaren alde eginez.

Auzolanarekin batera, irekitasuna, parekidetasuna eta aniztasuna ere badira Kilometroak 2017ren lan-ildo nagusiak.

Irekitasuna, beste gizarte, ideia eta ohituretara begiak zabalik, euskararen mundutik kanpora, beste komunitate eta hizkuntza desberdinak dituzten taldeetara irekia dagoelako Txantxiku Ikastola.

Gainera, parekidetasuna eta aniztasuna, guztiok desberdinak izanik, denok mundu duin baten bizi eta tratatuak izateko eskubidea izatea oinarrizkoa delako. Txantxiku Ikastolaren plan pedagogikoan aniztasunaren kudeaketa eguneroko lan lerro nagusi den moduan, Kilometroak 2017 jaian ezinbesteko balore bilakatuko da.

Aipaturiko balioak, bereziki landu dira ikasturtean zehar Kilometroak 2017rekin lotuta egin diren ekintzatan. Adibide bat ipintzearren, aurtengo Kilometroak jaiko abestia eta bideoklipa, lan-ildo nagusi horren bueltan osatu dira. Abestia, esaterako, Oñatiko hainbat musikariren eskutik sortu da eta grabaketa bera ere, auzolanean egin da. Berdina gertatu da bideokliparen grabaketarekin ere. Auzolanaren ideia, lau haizetara zabaldu da, Oñatiko lekaixoaren bitartez!

Heldu **euskarari**
eta gozatu **Lekaixoka!**

ELKARGi SGR
Tu **aliado** financiero. Zeure alboan.

almis

Finantza-zorroen kudeaketarako irtenbide espezializatuak eskaintzen dizkiegu Inbertsio Zerbitzuen Erakundeei

egaralur

Construcciones | **Eraikuntza Lanak**

50 años-urte
1967 | 2017

Bidebarrieta, 17 behea
Tel.: 943 78 07 15
Faxa: 943 78 08 62
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
www.egaralur.net



LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI

urtea iruditan

urrixa urria | *zemendixa* azaroa | *abendua* abendua | *ilbaltza* urria | *otsaila* otsaila | *martixa* martxoa

LEKUKOA JASOTZEA

LEKAITXOKA ARGAZKI LEHIAKETA



KILOMETROAK TXIKIA

BERDINTXIKETAN

LEKAIXOKA! LELOAREN AURKEZPENA

INAUTERIETAN ere LEKAIXOKA

XABOI TAILERRA

DENDA IREKIERA

MARTXO KULTURALA

ARROPA SALMENTA IRTEERAK

KILOMETROAK BIDEAN

Urtebete eman dugu irrintzika, imintzioka, garrasika, LEKAIXOKA!! Guztion artean antolatutako ekintzak, guztiok gozatzeko! Hemen aurtengo auzolanaren argazki erraldoia.

apirilla	*mariatza*	*bagilla*	*garagarrilla*	*agustua*	*agorra*
apirila	*maiatza*	*ekaina*	*uztaila*	*abuztua*	*iraila*

BIDEOKLIPA
Aurkezpena

ARTXIPIELAGOA

TONBOLA
San Migel Txikitan

ARTXIBATEGIARI BISITA

SUPITUKI

BIZIKLETA IRTEERA
Txirrindulari profesionalekin

ARTEA eta HIRIA

BERA-BERA vs AULA

50. URTEURRENA
Ikasle ohien bazkaria.

MAGIA ASTEBURUA

MENDIMETROAK
Gipuzkoako mendietan LEKAIXOKA

irailak 24

LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI

Auzolana, hitzetatik ekintzetara

Kilometroak bezalako ekitaldi bat antolatzeak alor ezberdinetan lan handia egin beharra dakar, xehetasun ugari aintzat hartzea, eta horretarako hamasei batzorde ibili dira lanean.

Maria Gardoki
Osasuna

Bere lan esparruaren zerikusi handiena zuelako eman zuen Maria Gardokik izena 45 kide inguru dituen osasun batzorderako. Eginbehar nagusia izan da Kilometroak egunerako gune bakoitzean egongo den botikina antolatzea: non egongo den zehaztu, materiala-eta antolatu, medikuen eta erizainen lantaldeak osatu... Bilerak ere egin dituzte Osakidetzarekin, Gurutze Gorrikoekin zein DYAkoekin. Gardokirentzat, erronka handiena boluntario talde sendoa eta profesionala osatzea izan da, eta zentzu horretan boluntarioek erakutsitako prestutasuna nabarmendu du. Osasun batzordeko kide izateak herriko jendea gehiago ezagutzeko aukera izan duela ere azpimarratzen du.

Gipuzkoako Ikastolen festa handiaren egunean bertan koordinazio gelatik gune bakoitzeko botikinak eta osasun zentroa koordinatuko dituzte, baita botikinen behar bereziei erantzun ere.

Arkaitz Bengoa
Protokoloa

"Oro har, datozen gonbidatuak etxean bezala sentiaraztea izango da gure lana", azaltzen du protokolo taldeko Arkaitz Bengoak irailaren 24an egin beharko dutenari buruz. Gonbidatuei harrera egin beharko diete, kafea eskaini, aurkezpen ekitaldira bideratu, ibilbidean zehar gonbidatuei lagundu, omenaldia kudeatu, otamena eskaini... Eginbehar asko, baina seguru azken hilabeteotan pilatutako esperientzia baliagarria zaiela oso. Izan ere, protokolo taldeak hainbat ekitalditan egin du isileko baina ezinbesteko lana: irekiera ekitaldian, Kilometroak Txikian, logoaren eta bideokliparen aurkezpen ekitaldian...

Protokolo batzordean zazpi kide dira, eta beste taldeekin ere sarri ibili dira elkarlanean: "Aurreikusten nuen tamaina honetako jai bat antolatzeak auzolan asko beharko zuela, eta azken urte honek horixe baieztatu dit".

Egoitz Atxaga
Txosnak

Beste batzorde batzuek legez, txosna batzordeak bi ildo nagusitan lan egin du. Batetik, urtean zehar izandako ekitaldietan txosna jarri dute. Eta bestetik, Kilometroak egunean zirkuituan egongo diren txosnen eta bestelakoen –talogileak, izozki-saltzaileak, kafe postua...– diseinuaz eta antolakuntzaz arduratu dira. "Kokapena zehaztu, planoak diseinatu, edari eta elikagaien hornidura bermatu eta boluntarioen lanak zehaztu eta koordinatu ditugu, besteak beste", azaldu du batzordeko koordinatzaileetako bat izan den Egoitz Atxagak.

26 kide dabiltza batzordean, eta Atxagarentzat aberasgarria izan da horrenbeste jende ezberdin ezagutu eta elkarlanean aritzea: "Helburu berdinarekin lanean zenbat boluntario ari garen azpimarratu nahiko nuke, bakoitzak bere aletxoa jarriz guztion onurarako izango den zerbaiten alde".

Nagore Altube
Gure zozketa

Gure Zozketa ekimenaz arduratu diren batzordeko kideak oso harro daude Txantxiku Ikastolak eman duen erantzunarekin. "Txartel ahalik eta gehien saltzea izan da eta da gure helburua, eta horretarako txartelak banatu ditugu langile eta gurasoen artean. Harro gaude bai izandako salmentengatik, eta baita antolatu ditugun irteeretan izandako jarreragatik ere", dio batzordeko kide Nagore Altubek.

Txartelen salmenta Gipuzkoako zenbait denda eta tabernatan ere egin dute, eta bitxikeria bezala sagardotegietara ere antolatu dituzte irteerak. Irailaren 24an ere jarraituko dute txartelak saltzen, horixe izango delarik eguneko eginbehar nagusiena. Hori, eta kudeaketa lanak. Izan ere, biharamunean, irailaren 25ean izango da zozketa, eta batzordeko kideek dena prest utzi beharko dute programa informatikoan.

Beatriz Gereka
Arropa-salmenta

Kamisetetan, jertseetan, zapietan, poltsetan... Aurtengo Kilometroetako Lekaixoka leloa leku askotan ikusi ahal izan da, eta arropa-salmentara bideratutako lantaldeak hartu du bere gain horren guztiaren ardura. Zazpi pertsonak osatu dute taldea, tartean ikastolako irakasle ohi den Beatriz Gerekeka: "Ikastola nire bizitzako zati garrantzitsu bat izan da, eta da oraindik ere, eta horrek dakar antolakuntzan parte-hartzea.

2016ko ekainean hasi ziren lanean, eta hiru azpitaldetan banatuta jardun dute: talde batek arropak etiketatu eta irteeretarako poltsak prestatu ditu; beste batek, Gipuzkoako herrietarako irteerak prestatu; eta hirugarren batek, herriko arropa denda prestatu. Herriko denda zabaltzeak ekarri dituen prestakuntza lanak izan dira batzordearen erronka handienetakoa, baita arropen aukeraketa-eta egitea ere. Eta ordurako askok soinean Kilometroetako jantziak eramango dituzten arren, irailaren 24an ere ez dira eskuak gurutzatuta egongo: "Gune bakoitzean dendak jartzeko azpiegitura dena ondo prestatuta utzi beharko dugu, lantaldeen lana ondo zehaztu, muntaia...".

Unai Madinagoitia
Muntaia

Hainbat lantalderi egiteko nagusiak Kilometroak egunean bertan pilatuko zaizkien arren, bertako kide Unai Madinagoitiak azaldu bezala ez da hori muntaia batzordearen kasua: "Espero dugu egunean bertan lan askorik ez izatea, seinale txarra izango litzateke eta. Gure lana aurreko astean egingo dugu batez ere: txosnak eta oholtzak muntatu, berauetara argindarra eta ura heltzeko azpiegiturak egokitu... Egunean bertan hesiak antolatu eta mahaiak eta aulkiak kokatzeaz gain, egon daitezkeen arazoei erantzuna ematea izango da gure eginbeharra. Eta eguna amaitutakoan, guztia desmuntatzea".

Orain arte izandako ekitaldietako oholtzak muntatu eta kentzea; iazko Kilometroetako materiala Bergaratik ekarri eta Oñatiko biltegian gordetzea; tonbola jartzea... izan dira urrian martxan hasi zenetik batzordeak egindako lanetako hainbat. Maiatzera arte 10-15 pertsonaz osatuta egon zen arren, egun 80 kide inguru ditu. "Esperientzia polita ari da izaten ", dio Madinagoitiak, baina aitortzen du, era berean, azken hilabete eta erdian lanak ugaritu egin direla, eta hori dela eta hasiak direla urduritzen.

Ane Mendizabal
Trafikoa

Hiru pertsonarekin jarri zen martxan iazko irailean trafikoaz arduratu den lantaldea, tartean Txantxiku Ikastolako irakaslea den Ane Mendizabal bera, eta gaur egun 70-80 lagunek osatzen dute. "Gure betebeharrak bi esparru nagusitan banatuko nituzke. Batetik, autobusendako eta autoendako aparkalekuak lokalizatzea eta prestatzea; bestetik, trafikoa Oñatiraino modu egokian bideratzea, kontuan izanda beharrezko bide mozketa batzuk egongo direla". Aparkalekuak identifikatzea izan da orain arte izan duten erronka handienetakoa; Kilometroak egunean bertan izango duten erronka nagusiena, bestalde, Elorregitik Oñatira trafikoa ahalik eta arinena izatea izango da, errepidea kolapsatu gabe.

Mendizabalentzat, trafiko batzordean alor guztiz ezezagun bat jorratu ahal izan du, eta horrek asko ikasteko balio izan dio. Boluntarioen ganora azpimarratzeaz gain lau batzordeburuen artean izan duten giro eta umore ona azpimarratzen ditu, eta irailaren 24ko desio bat esateko eskatuta, ez du zalantzarik egiten: "Prestatutako aparkaleku guztiak beteta ikustea, horixe izango da-eta arrakastaren adierazleetako bat".

Jon Irizar
Komunikazioa

Bi arrazoi nagusik animatu zuten Jon Irizar komunikazio batzordean parte-hartzera: batetik, euskararen eta Ikastolaren aldeko aldarriarekin bat eginda auzolan erraldoian bere aletxoa jartzea; eta bestetik, Komunikazioko Gradua amaitu berritan, ikasteko aukera aprobetxatzea: "Eguna iristear da, eta ederra izan da urte honetan bizi izandakoa".

Kilometroak jaiaren baloreak, Txantxiku Ikastolak hartutako lan-ildoak eta urtean zehar egindako ekintzak jendartera helaraztea izan dira batzordearen betebeharrak, egun dauden kanal eta bide egokienak erabiliz. "Adibide bezala, eskuartean duzuen aldizkaria batzordeak garatu du hasieratik bukaerara", dio Irizarrek. Orain arte egindako bidean, bost mugarri azpimarratzen ditu: logoaren eta leloaren aurkezpena; kantua eta bideoklipa; berauen aurkezpen ekitaldia; aldizkari hau; eta azkena, Kilometroak eguna bera: "Egiari zor, egunean baino aurreko zein osteko egunetan izango dugu lan gehiago! Baina Egunaren jarraipena ere egingo dugu: argazkiak, bideoak, zirkuituan zehar entzungai izango den irratsaioa, hedabideen eskaerak asetzea, prentsa-oharrak...".

Oñatrans S.L.
Garraioak

Maastrich, 2. Pol. Subillabide
01230 Iruña Oka (Araba)

Tel. **945 29 02 06** Faxa: **945 29 09 69**
onatrans@onatrans.com • www.onatrans.com

Oihana Altzelai
Prebentzioa

Gabonen ostean hasi zituzten bilerak prebentzio batzordekoek, orain hogei inguru diren arren, hasieran, bospasei lagunek. Gerora, Eusko Jaurlaritzan eta Osakidetzan prebentzioan lan egiten duten ordezkariekin, Udaleko teknikariarekin eta iazko Bergarako lantaldekoekin ere egin dituzte bilerak.

Kilometroak egunean alkoholaren kontsumo arduratsua bultzatzea da batzordearen helburua, Oihana Altzelai kideak azaldu bezala: "Gazteen artean ematen den alkoholaren gehiegizko kontsumoa arazo bat da; eta Kilometroak ez da botiloi erraldoi bat, ikastolen aldeko jai erraldoia baizik". Horretarako, AGIPADEk formazioa eman die batxilergoko ikasleei, eta batzordetik DBHko ikasleekin lantzeko materiala ere prestatu dute. Alkohola saltzen duten dendetan dekalogo bat ere banatu dute, eta kanpaina bat ere jarri dute martxan sare sozialetan. Kilometroak egunean zirkuitoan eta guneetan ibiliko dira batzordeko boluntarioak, gazteengana gerturatuz, informazioa banatuz, graduazio altuko edariekin dabiltzanak horiek uztera gonbidatuz... "Orokorrean, ondo pasatzeko mozkortu beharrik ez dagoela konbentzitzen saiatuko gara!", dio Altzelaik.

Naia Aranzabal
Zirkuitua eta segurtasuna

"Parte-hartzera animatu gaituena izan da ikastolako ikasle ohiak eta gurasoak garela, eta horrelako ekintza bat antolatzeak dakarren lanaz jabetuta, gure burua lan egiteko prest ikusi dugula", dio zirkuituaz eta segurtasunaz arduratu den batzordeko kide Naia Arantzabalek.

Zirkuitua definitzea izan dute eginbehar nagusietakoa, erronka handia suposatu duena: "Antolatuko diren makroekintzentzat gune zabal eta egokiak behar genituen, eta gainera, zirkuituan barneratuta egon behar ziren.

Baimen kontuengatik hainbat aldaketa egin behar izan ditugu, baina lotuta dago dena". Zirkuitua definitzeaz gain, bertako segurtasuna bermatzea ere izan da lantaldearen ardura, eta irailaren 24an ere horretan jardungo dute, baita paso kontrolatuak kudeatzen ere. Esan behar da Kilometroak Txikia entrenamendu ezin hobea izan zela lantaldearen eginbeharrerako, eta antolatu diren bestelako ekintzetan ere batzorde honetako kideak ibili direla sarrera-irteeren kontrola egiten.

Julen Anakabe
Ekonomia

Txantxiku Ikastolak Kilometroak antolatzeko hautagaitza aurkeztu eta izendapena lortu zenean hasi ziren lanean ekonomia batzordeko buruak. Lau batzordeburu izan dira, tartean Julen Anakabe ikastolako administraria, baina egun handira begira lantaldean 120 lagun arituko dira auzolanean. "Nahiz eta urte osoko lana gogorra izan, lanak aurrera egoki eramanez gero normalean Kilometroen emaitza ekonomikoa bide onetik joaten da. Eta egunean bertan eguraldi ona izatea ere ezinbestekoa da", dio Anakabek.

Bi aurrekonturekin ibili dira lanean ekonomia batzordekoak: bata, urte osokoa, eta bestea, Kilometroak egunera bertara begirakoa. Diru sarreren jarraipen eguneratuaz eta gastuen kontrolaz arduratzea; urtean zehar izan diren ekintzak antolatzen ibili direnek izandako beharrei erantzutea; entitate finantzarioekin eta aseguru etxeekin harremanak izatea... Horiek izan dira batzordearen eginbehar nagusiak, eta irailaren 24an Ikastolan egongo den koordinazio gelan egongo dira ekonomia arduradunak, arlo ekonomikoari dagozkion beharrei ahalik eta azkarren erantzuteko.

Ane Pico Urizabel
Parekidetasuna

Kilometroak jai parekidea eta eraso sexistarik gabekoa izateko helburua du parekidetasun batzordeak, eta horretarako lanean iazko udan hasi ziren, gida bat sortuaz. "Lantalde guztietan parekidetasuna aintzat hartua izan zedin egin genuen gida, gaia ardatz nagusienetakoa izanda, zeharka denetan landu zezaten", dio batzordeko kide Ane Piko Urizabelek.

Irailaren 24an, zirkuituko hiru gune nagusietan Puntu moreak izenekoak jarriko dituzte, informazioa eskaintzeaz gain beharra izanez gero jendeari laguntzeko. "Horretarako formazioa jaso dugu eta jarraibide guztiak zehazten dituen protokolo bat ere badugu. Gainera, taldean gai honetan adituak diren bi pertsona daudela aprobetxatuaz, kontrol gunean egongo dira egun guztian", azaltzen du Pikok. Bere esanetan, erronka izan da gauzak ohiko moduan egin beharrean, modu parekidean egitea: "Parekidetasuna lehenesteaz gain, sormena eta ausardia behar dira gauzak ezberdin egiten hasteko. Ideiak lurrera ekarri behar dira. Egunean bertan gertatu ahal diren egoera ezberdinei erantzun posibleak pentsatu eta eztabaidatzea ere bada erronka".

Edurne Agirre Usandizaga
Giza Baliabideak

1.600 boluntario beharko dira Kilometroak eguna gauzatzeko, eta lantaldeak pertsonaz elikatzea izan da giza baliabideen batzordearen eginbeharra: "1.600 pertsona horiek bilatu eta bakoitzaren profilaren arabera lantaldeetara bideratu ditugu", azaltzen du Edurne Agirre Usandizagak. Bilaketa kanpaina eta deialdi ezberdinak martxan jarriaz egin dute: elkarteetara joaz, tabernetan kartelak jarriz, sare sozialen bidez, Txantxiku Ikastolako ikasle ohien bazkarian jendearengana gerturatuaz, enpresa eta erakundeen ateak joaz...

Agirrek izandako erantzun positiboa azpimarratu nahi izan du: " Askoren kasuan, ikastolarekin izan dezaketen loturagatik hasiera batean logikoa badirudi ere, ezeren truke lan egitearen aldeko jarrera erakutsi dutelako; baina baita beste asko, lotura hori inondik inora izan gabe animatu direlako. Erabat eskertuta gaude herritarrek, eta orokorrean boluntarioek, lanerako eta laguntzeko erakutsi duten jarrerarekin". Behin baino gehiagotan nabarmendu den moduan, auzolana izan da, bere esanetan, herritarrak mugiarazi dituen motorra.

Ainhoa Eguren
Jasangarritasuna

Ahalik eta hondakin gutxien sortzea, hondakinen sailkapena eta kudeaketa egokia egitea, iturriko uraren erabilera sustatzea, garraio publikoaren eta bizikleten erabilera bultzatzea... Horiek dira jasangarritasun batzordearen helburu nagusiak, eta hori lortu asmoz hainbat ekintza jarri dituzte martxan urtean zehar. Hala, Ekolio enpresarekin elkarlanean, sukaldean erabilitako olioa jasotzeko kanpaina jarri dute martxan herriko tabernetan, elkarteetan eta ikastolan bertan; eta ikasleen artean jasangarritasunarekin lotutako logo eta lelo lehiaketa ere egin dute.

Ainhoa Eguren da jasangarritasun batzordeko bi buruetako bat, eta bere esanetan erronka handiena jendearen ohituretan eragitea izan da: "Txosnetako ohitura batzuk aldatzea nahi dugu; esaterako ura pitxarretan ateratzea edo iturriak erabiltzea. Baita ogitartekoak zorro gabe ateratzea, edo sortzen den materiala datorren urtean erebiltzeko modukoa izatea ere". Kilometroak egunean hondakinak batzea eta sailkatzea izango dute arduretako bat, baina komunen zaintza eta bizikleten aparkalekua hartuko dituzte euren gain, eta megafonia bidez ere zabalduko dituzte mezuak.

Iñigo Ugarte
Ikuskizunak

Urte osoan zehar egin dira jaiaren inguruko ekitaldiak: mendi irteerak, antzerki zein musika emanaldiak, kirol ekintzak... Eta horiek antolatzen ibili dira ikuskizun batzordeko lantaldeak. Horrez gain, Kilometroak egunerako kontzertuak, bertsolariak, kale-animazio programazioa ere eratu dute. "Erronka handienetakoa programazio erakargarria sortzea izan da, hainbeste talde ezberdinekin harremanetan jarri eta publiko mota ezberdinen gustuko ekintza zein emanaldiak lortzea", dio Iñigo Ugartek. Baina ez da hor bukatu batzordearen lana: "Ikuskizun taldeko batzordekideok musikariak ere bagarenez, aurtengo abestiaren konposaketan eta grabaketan buru belarri aritu gara lanean".

Egun handian 65 lagunen lana beharko dute guztia behar bezala atera dadin. "Lau guneetan banatuta ekintza ezberdinak burutuko dituzten taldeei harrera egitea, ekarriko duten materialarekin laguntzea eta egitarauan zehaztutako ordutegia betearaztea izango dira gure lan nagusiak. Etorriko diren soinu-teknikariei ere beharrezkoa den guztian lagunduko diegu eta kaleak girotzen ibiliko diren taldeekin ere egongo gara ".

Jabi Agirre
Erronka

Oñatin ere egingo dute 2013an martxan jarritako Erronka ekimena. Gipuzkoako 20 ikastolak hartuko dute parte, eta Erronka batzordekoen lana izan da aurtengo probak diseinatzea: "San Martinen, Eroskin, Berezaon eta Asentzion egingo diren probak diseinatzea, horien simulazioa egitea eta beharrezkoa izango den materiala prestatzea izan da gure egiteko nagusia. Horrekin batera, Gipuzkoako ikastola guztiekin ere egon gara harremanetan taldeak osatu zitzaten animatzeko", azaldu du Jabi Agirrek.

Oñatiko Erronka prestatzeko orduan, lehenengo Bergarako Aranzadi ikastolakoekin elkartu ziren iaz izandako esperientziak jasotzeko helburuarekin. Ondoren, talde eragile bat osatu zen, eta bertako kideak hasi ziren lehen urratsak ematen. Koordinazioa talde eragilearen ardura izan den arren, jende askoz gehiagoren parte-hartzea izan du lantaldeak, gune bakoitzeko 20 lagun ibili dira-eta lanean. "Aparta izan da gure kide gehienek erakutsitako gogoa, eta urtean zehar laguntzeko aukera izan ez dutenak ere irailaren 24an dena emateko gertu daude", gaineratzen du Agirrek. Batzorde hau izan da baita ere maiatzeko Mendimetroak ekimena bideratu zuena.

Etxe-Lan
OSTALARITZARAKO SUKALDARITZA TALDEENTZAKO ETA GARBITEGIRAKO EKIPAMENDUA
Torrebaso Industrialdea, 14
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 79 12 30
www.etxe-lan.com

MENDIMETROAK

Kilometroak eta mendizaletasuna uztartu nahian, maiatzaren 21ean Gipuzkoako hainbat mendik beste horrenbeste Ikastolen bisita izan zuten.

EHU-ko Gorputz Hezkuntza eta Kiroleko irakaslea den Luix Mari Zulaikak, gazteak eta mendizaletasunaren gainean egindako ikerketa baten ondorioz, Mendimetroak ekimena jarri zen abian lehen aldiz. Honen helburua, Kilometroak 2017 girotu eta Ikastolek osatzen duten komunitatea sendotzeaz aparte, gure artean errotua eta tradizio handikoa den kirol, aisialdi mota hau sustatzea da.

Horrela bada, maiatzaren 21ean Txantxiku Ikastolako ikasle, guraso, irakasleek...Oñati herria bere magalean hartzen duen Aloña mendia igo zuten. Era berean, Belkoiain, Urkulu, Andramendi, Morkaiko, Txalintxo, Agarre inguruak, Usurbe, Allerru, Uzturre, Andutz, Kukuarri, Lazkaomendi, Urkamendi eta beste hainbat tontor eta inguru eder Gipuzkoako Ikastoletako familiez bete ziren.

Erronka ekimenaren baitan kokatua dagoen ekintza honekin, lehiakortasuna alde batera utzi eta giro konpetitiboari beste izaera bat eman nahi izan zitzaion: kirolaz gozatzaeko eguna. Irteerarekin batera, ikastola bakoitzak bere irudi kronika egin zuen.

Txantxiku Ikastola Oñati

Aranzadi Ikastola

Irurako ikastola

Anoeta Ikastola

Arizmendi Ikastola

Elgoibar Ikastola

Andoaingo Ikastola

Zubimusu Ikastola

Haztegi Ikastola

Orereta Ikastola

Orioko Herri Ikastola

Euskararekin bat!

Enpresa eta kolektibitateen ekipamendu osoa

www.montte.com

montte projects

Eremu eta barne ekipamendu proiektuak

www.montteprojects.com

montte tech

Azpiegitura informatiko eta tecnologi soluzioak

www.monttetech.com

montte supplies

Enpresa eta eskoletarako horniketa orokorra

www.montte.com

BILBO | DONOSTIA | GASTEIZ | IRUÑA | BEASAIN

1989ko ibilbidea, kontrako noranzkoan

Ibilbide "eroso, polit eta atsegina" prestatu dute antolatzaileek irailaren 24ra begira. 5,8 kilometro ditu eta aldaparik gogorrena San Martinetik Asentziora bitartekoa da.

Erraz egiteko modukoa da Kilometroak 2017ko lantaldeak Kilometroak egunera begira prestatu duen ibilbidea. 1989ko urriaren 1ean Oñatin egin zen Kilometroak egunean egin zen zirkuituan du oinarria oraingo ibilbideak. Hori bai, kontrako noranzkoan egingo da aurtengoan. Herriko plazan hasi, Kale Barrian gora segi eta San Martinera iristen da ibilbidea. Handik, Murgia auzoko Asentziora eta gero Berezaora. Berezaotik berriz ere herrira doa bidea eta Bidebarrieta auzotik, plazaraino iritsiko da. Ibilbide horretan, lau gune nagusi zeharkatuko ditu bisitariak –Herriko Plaza, San Martin, Asentzio eta Berezao–. Eroskiko aparkalekuan, artisauen eta euskal kulturgintzaren txokoa egongo da.

Ibilbide erosoa eta irisgarria da aurtengoa. Azken ezaugarri hori oso kontuan hartu dute antolatzaileek, alegia, irisgarritasunarena. Irisgarria izateaz gain, ibilbideak, Oñatiko paraje ederrez gozatzeko aukera paregabea emango dio bisitariari.



1989ko kilometroko argazkiak



1 IKASTOLA

2 SAN MARTIN

● Legazpitik Oñatira (Udana) GI-2630 ITXITA egongo da.

SAN MARTIN

ARTZAIN TXAKURREN TXAPELKETA

HAURREN HIRIA

ERRONKA

ERRONKA FINALA

ERRONKA

4 BEREZAO

3 ASENTZIO

3 ASENTZIO 4 BEREZAO

SOS

KOMUNAK

ELBARRITUEN-TZAKO KOMUNAK

PARDELAK ALDATZEKO GUNEA

TXOSNA

BAZKARIAK

IZOZKIAK

KMK DENDA

TIKETAK

ERRONKA PROBAK

ITURRIA

KAFEA

TONBOLA

1 IKASTOLA

PLAZA

FRONTOIA

2 SAN MART

"HAURREN HIR

09.30
09.45
10.00
10.15
10.30
10.45
11.00
11.15
11.30
11.45
12.00
12.15
12.30
12.45
13.00
13.15
13.30
13.45
14.00
14.15
14.30
14.45
15.00
15.15
15.30
15.45
16.00
16.15
16.30
16.45
17.00
17.15
17.30
17.45
18.00
18.15
18.30
18.45
19.00

IREKIERA EKITALDIA

UDABERRI DANTZA TALDEA

HUTSUN
TXALAPARTARIAK

HERRIXA KANTUAN

TIO TERONEN SEMEAK
DANTZA TALDEA

BERTSOAK
Andoni Egaña, Maider Arregi, Aitor Mendiluze eta Uxue Alberdi

OXABI

LIHER

ANJE DUHALDE

DANTZA TAILERRA

OIHULARI KLOWN!

KULKI
HAUR ETA UME JOLASAK

TXATXILIPURDI
HAUR ETA UME JOLASAK

TXATXILIPURDI
HAUR ETA UME JOLASAK

XOMORRO

GAUARGI

INGURUABENTURA

INGURUABENTURA

OMENALDIA (SANTA ANA ANTZOKIAN) **11:30ean**

KAIKUTXO IPUIN KONTAKETA orduero

NAZIOARTEKO ARTZAIN TXAKU
TXAPELKETA 10:30-14:00

N

"

3 ASENTZIO

4 BEREZAO

09.30
09.45
10.00
10.15
10.30
10.45
11.00
11.15
11.30
11.45
12.00
12.15
12.30
12.45
13.00
13.15
13.30
13.45
14.00
14.15
14.30
14.45
15.00
15.15
15.30
15.45
16.00
16.15
16.30
16.45
17.00
17.15
17.30
17.45
18.00
18.15
18.30
18.45
19.00

TRINI FOX

ERRONKA

BEÑAT IGERABIDE

ERRONKA

OIHAN VEGA

ERREBAL

EGURRA TA KITTO!

PERLAK

ERRONKA

JOSEBA IRAZOKI ETA LAGUNAK

ERRONKA

SHARON STONER

ARKADA SOCIAL

HERSTURA

HUNTZA

ERRONKA

FINALA ETA SARI BANAKETA

WILLIS DRUMMOND

3TXULO
kale ikuskizuna (eitb)

ERRONKA

ERRONKA

TXATXILIPURDI
HAUR ETA UME JOLASAK

REN

AXI MUNIAIN "CARVER" ERAKUSTALDIA 10:00-18:00

HERRI KIROLAK (NATRA-n) **11:30-13:00**

EUSKAL KULTURGINTZA + ARTISAUTZA
(EROSKI-ko aparkalekuan) **10:30-18:30**

Zortzi aparkaleku, 4.600 ibilgailu hartzeko

Oñatik sarrera bakarra izango du ibilgailuendako: Elorregitik. Autoak uzteko lekuak Zubillagatik hasi eta herriraino egongo dira. 350 autobusendako parkinga kanposantuaren inguruetan kokatuko dute.

Halako festa erraldoiak batzen duen jende andana nola kudeatu izan da antolatzaileen buruhausteetako bat. Bada, Oñatira hurbilduko diren ibilgailuendako zortzi aparkaleku zehaztu dituzte. Guztira, 4.600 ibilgailu pasa sartuko dira. Kanpotik datozen bisitariak, auto partikularretan izan edo autobusetan, Elorregitik sartu beharko dira herrira. Irailaren 24an Udanako mendatea guztiz itxita egongo da ibilgailu guztiendako. 08:00etatik 20:00etara ezingo da GI-2630 errepidearen zati hori erabili.

Eta, ibilgailuak, Elorregitik sartzen direnean, zein izango da protokoloa? Antolatzaileek aurretik finkatutako aparkalekuetara bideratuko dituzte. Herrigunetik gertuen dauden aparkalekuekin hasiko dira. P1 gunekoekin alegia. Hori bete ahalaz bat, P2rekin hasiko dira. Eta, horrela, hurrenkeran, P7 guneraino. "Gerta daiteke aparkaleku gune bat bete aurretik, beste batekin hasi beharra edukitzea, zirkulazioan pilaketarik egon ez dadin. Baina, hori, momentuko egoeraren araberakoa izango da", esan du Ikastolen Elkarteko teknikari Hilario Seinek.

Herrigunera oinez

Guztira zortzi aparkaleku handi dira Kilometroak egunean egongo direnak. Herritik gertuen egongo dira autobusendako PBUS eta autoendako P1 guneak. Lehena, Ulma taldearen bulego orokorraren eta kanposantuaren inguruetan egongo da. Autobusak saihesbidetik sartuko dira haraino. 350 autobusendako lekua egongo da. Autobus horiek, lineaz kanpokoak dira. Pribatuki antolatutakoak. Euren ibilgailua aparkatu ostean, oinez sartuko dira Kilometroetako zirkuitoan. Zehazki, osasun zentroaren aurrealdean egongo den sarreratik.

Era berean, oinez sartuko dira zirkuituan P0 aparkalekuan autoa uzten dutenek. Agustindarren elizaren inguruetan eta Obispo Otadui kalean 400 bat autorendako lekua egongo da. Hortik, Kale Zaharretik gora, Foruen plazako sarreratik sartuko dira.

Azkenik, garraio publikoa erabiltzen dutenak ere oinez iritsiko dira herrigunera. Lurraldebuseko autobusak Enpresagintza aurrean gelditukoo dira. Bisitariak, Foruen plazako sarrera erabiliko dute zirkuitua egin ahal izateko.

Gainerako aparkalekuetatik –P2tik P6ra– herrigunera heltzeko, autobus lanzaderak egongo dira. Etengabe egingo dute joan-etorria. Horiek ere, Mondragon Unibertsitatearen fakultate aurrean geratuko dira.

Zubillagaraino

P1 gunea Torreauzon ipiniko dute. Txintxurreta enpresaren inguruan, Ulma Packagingen, Oñati garajearen inguruan eta Katealegaiaren eraikin zaharra dagoen



inguruetan aparkatu ahal izango dira autoak. 480 auto inguru.

P2 aparkalekua Ulma Eraikuntza enpresaren inguruetan izango da, enpresak berak erabiltzen duen guneetan.

P3 aparkalekua Fagor Showroomen egongo da. Enpresaren inguruan, buelta osoan dauden aparkalekuak hartuko dituzte: 200 bat plaza. Handik gertu, Lana eta Staedler enpresen artean ipiniko dute P4 gunea. 580 ibilgailurendako lekua egongo da han.

Hurrengo bi aparkalekuak, Zubillagan ipiniko dituzte. P5 gunea auzoaren sarrerako industriagunean: Ulma Pipping eta Mekalki aurreko aparkalekuetan. P6 gunea, azkenik, Ulma Architectural Solutions, Mankomunitateko hilerria eta suhiltzaileen inguruan. P5 gunean 250 autorendako lekua egongo da, eta, P6 gunean, 600endako lekua. Azkena P7, San Prudentzion bertan dagoen aparkalekua izango da.

Ala ere, aparkaleku guzti hauek betez gero, Arrasateko Eroskiko aparkalekua erabiliko litzateke.

Eta, aparkalekuak kudeatzen, zirkulazioa bideratzen eta errepidean pilaketarik egon ez dadin, ia 130 boluntario egongo dira.

Lurraldebuseko autobusak Enpresagintzako aparkalekuan geratuko dira. *Argazkia: Goiena*

PBus eta P0 guneetatik oinez hel daiteke herrigunera eta zirkuituaren bi sarreretara: osasun zentrokora eta Kale Zaharrekoa

Arantzazuko bidea zabalik

Kilometroak festara ez ezik, beste arrazoiren bat tarteko, Oñatira doazen guztiek, Elorregiko sarrera erabili beharko dute irailaren 24an. Saihesbidea zabalik egongo da ibilgailuendako, baina ezingo dira herrian sartu. Arantzazura igotzeko errepidea, baina, zabalik egongo da. Azkogainetik gorako auzoetarako sarrera-irteerak ere zabalik egongo dira.

LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI
IRAILAK 24

KILOMETROTARAKO
AUTOBUS ZERBITZUAK

Azkoitia, Azpeitia, Zestoa
Elgoibar, Deba, Mendaro
Zumaia, Zarautz

8€ joan eta etorri

Aldalur

Ordutegiak www.aldalur.com-en
943 852587

ERRONKA

Ikastolatik hasi eta Berezaoraino Erronkarako prest egongo dira 13-16 urte arteko gazteak. Zirkuituak izango dituen lau guneetan hainbat joko eta proba gainditu beharko dituzte finalera iritsi ahal izateko. Abentura eta jokoa, lana eta jolasa. Gure herriko zein beste ikastoletako gazteek beraien burua jarri beharko dute proban. Zatozte animatzera!

Argazkia: Herri Ametsa ikastola

Urtero ospatzen da Erronka ikastolen aldeko jaialdietan. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako ikastoletako DBH-ko 13-16 urte bitarteko gazteek proba ezberdinak egiten dituzte. Erronkaren bidez parte-hartze aktiboa izaten dute. Gipuzkoan Kilometroak egunean bertan egiten da. Probak biziak dira, zirrara sorrarazten dutenak.Taldeka gainditu behar dira. Bertan, ikasleen trebezia, indarra eta abiadura neurtzen dira. Bestalde, jakintza orokorra, euskaltzaletasuna eta buruargitasuna ere lantzen dira.

Erronkaren izaera

Ikastola eta ikasleak dira protagonista. Hainbat ikastolatako ikasleek parte hartzen dute, elkarrekin gozatuz , egun paregabea ospatuz eta ondo pasaraziz. Eta, batez ere, EUSKARAZ!!!

Talde bakoitzeko 8-16 kide izaten dira eta 2 ordezko izan ditzakete. Talde bakoitzak kapitain bikote bat izaten du (neska eta mutila).

AURTENGO ERRONKA

Aurten 20 izango dira gure herriko Erronkan parte hartuko duten ikastolak. Hamarrek bi froga egingo dituzte eta beste hamarrek beste bi. Aurreneko froga goizeko 11:00etan hasiko da eta bigarrena 12:30ean. Horiek amaituta partaide denak San Martinen elkartuko dira elkarrekin bazkaltzeko.

Azpimarratzekoa da finalean GUZTIEK parte hartuko dutela. Inor ez da kanpoan geratuko. Gainera,aurtengo finala berezia izango da, izan ere, berau Artzain Txakur txapelketa egiten den eremu berean egingo da. Kontuan izanda, Artzain Txakur txapelketa goizean bertan egingo dela, arratsaldean, beste proba osagarri batez gain, gazteek txapelketa hori irudikatuko dute.Beraz, ikasle batzuk "ardiak" izango dira eta beste bat "artzaina".

Froga guztietan denbora neurtuko da eta hori izango da sailkapena zehaztuko duena.

Erronkarekin batera RURAL KUTXAK babestutako bideo lehiaketatxo bat ere egongo da. Talde bakoitzak bideotxo bat prestatu du eta bideo horiek irailean zehar bozkatuko dira. Edozeinek bozka dezake: ikasle, irakasle, guraso edo herritar, guztientzako dago zabalik. Bideoak *https://erronka-kilometroak.joveninhastalos30.com* daude ikusgai.

Beraz, animatu eta eman botoa!

Gasgarin S.A.

GAS REPSOL AGENTZIA

TEL.: 943 88 25 76

REPSOL

Kilometroak gunez gune: Ikastola

Gune nagusia eta handiena da lehenengoa. Bi zatitan banatuko da: plaza eta frontoia. Ikuskizunak plazan egongo dira eta frontoia haurrentzako egokituko da. Gainera, Zubikoa kiroldegian jantoki zerbitzua egongo da.

gunea

LIHER

Lehenengo gunean emango zaio hasiera aurtengo "Kilometroak" festari. Gunea goizeko 9:30ean irekiko da. Orduantxe egingo da irekiera ekitaldia. Ordubete beranduago lehenengo ikuskizuna egongo da: "Udaberri Dantza Taldeak martxan jarriko gaitu. Ondoren, eguerdi aldera, 11:45ean Omenaldia egongo da Santa Ana Antzokian.

Tio Teoren semeak

Egun osoan zehar hainbat taldez eta tailerrez gozatu ahal izango dugu, Aipatzekoak dira geroz eta jarraitzaile gehiago dituzten Tio Teronen semeak, eta noski, euskal jai batean falta ezin den Anje Duhalde.

Haurrei dagokienez puzgarriak egongo dira frontoian. Era berean, beraiek ere ikuskizun desberdinez gozatzeko aukera izango dute, adibidez parrez lehertuko dira Oihulari Klown-ekoekin.

Oihulari Klown

Hutsun txalaparta

Oxabi erromeria

Anje Duhalde



Haurrendako gunea, San Martinen

Gaztetxoendako jolasak, ikuskizunak eta naturarekiko hartu-eman zuzena duten ekintza ugari izango dira San Martingo parkean. Goizean, baina, Nazioarteko Artzain Txakur txapelketa ospatuko da eta, hain justu, aurtengo gaztetxoen erronkak lotura izango du artzain txakurrekin eta ardiekin.

Bigarren gunea izango da San Martin inguruan kokatuko dena. Horrela bada, gaztetxoentzako *Natura abentura* parkea eta futbolin erraldoia izango dira bertan aurkituko diren ekintzetako batzuk, besteak beste.

Haurren hiria izeneko bigarren gune hau, gunerik "lasaiena" izango da. Horretarako San Martingo parkea egokituko da txikienen gozamenerako.

Hala, bi zatitan banatuta egongo da San Martingo berdegune-zuhaiztia. Batetik, ermita aldeko gunean, ingurunea ardatz edukiko duen parkea muntatuko da haurrentzat. Hala, bertaratzen diren gaztetxoendako jolasak eta ikuskizuna izango dira. Natura bertatik bertara ukitu, gozatu eta sentitzeko gune aparta izango dute txikitxoenek.

Parkearen bestaldean, berriz, Kutxa Espazioa, Ekogunea, Realaren parkea eta *Gure Zura* izeneko ludoteka izango dira protagonistak.

Azpimarratu ere, aurtengo Kilometroak festarekin batera Oñatin urtero ospatzen den Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa ospatuko dela.

Hala, bigarren gunean bertan, eta goizean zehar, Artzain Txakur Txapelketa eta *Haurren hiria* bateratu eta elkarrekin ospatuko dira.

Bertan, aurreko urteko Nazioarteko txapelduna, Euskadiko txapelduna eta azpi-txapelduna, Hego Euskal Herriko lau lurraldetako txakur txapeldunak, Iparraldeko txapelduna eta azpi-txapelduna, Kataluniako txapelduna eta azpitxapeldunekin batera, Frantzia, Bearn, Castellon eta Mallorkako ordezkariak arituko dira lanean.

Erakustaldi aparta egingo dute berezia izango den aurtengo txapelketan.

Aipatu, Artzai Txakur Txapelketa egongo dela goizean zehar, baina, aurtengo erronkako finala txakur txapelketako leku berdinean egingo dute gaztetxoek arratsaldean. Hala, ikasleek ardien papera bete beharko dute aurtengo Kilometroetako erronka berezi horretan.

Honez gain, jan eta edatekoa ere izango da bigarren gune "berde" honetan: edariak zerbitzatuko diren txosna, Eusko Label txosna, pastel postua, puzgarriak eta globo aerostatikoa jarriko dira aldameneko maldan gerturatzen diren ororendako.

2 gunea

inguru ABENTURA

3txulo

Txatxilipurdi

Gauargi



Musikaz gozatzeko, Asentzio

Musika nagusituko da hirugarren gune honetan, adin eta gustu guztietarako musika, gainera. Izan ere, Euskal Herri mailan ezagunak diren hainbat taldek eskainiko dute kontzertua. Horrez gain, skatea oinarri duen Carver erakustaldi bat ere egongo da egunari hasiera emateko, Axi Muniain surflariaren eskutik.

Asentzioko gunera gerturatzen direnek ez dute aspertzo aukerarik izango une bakar batean ere. 10:00etan hasiko da lehen ekintza. Axi Muniain surflari zarauztarra Carver erakustaldia eskainiko du skatearekin. Hau bukatzean, Trini Fox taldearen stoner doinuak entzun ahal izango dira. Erronkarendako tartea izango da ondoren eta berriro musikari helduko zaio. Izan ere, Beñat Igerabide bakarlari adunarrak –Merezi Ote edo Ihesi bezalako kantu ezagunen egilea– kontzertua eskainiko du, 11:30ean. Gero, berriro ere erronkarendako tartea izango da eta eguerdian, 13:30ean, Oihan Vega ariko da musika jartzen eta giroa alaitzeko helburuarekin. Bazkalostea erromeria giroarekin hasiko da, eta gorputza dantzan jartzeko aukera izango dute gunean daudenek. Izan ere, 15:00etan, Errebal taldearen eskutik, dantzaldi gidatuak egongo dira. Ondoren ere ez da atsedenerako aukerarik egongo, 16:00etan Egurra ta Kitto talde azpeitiar ezagunaren kontzertua izango da eta. Azkenik, eguna post punk doinuekin amaituko da Asentzioko gunean, Perlak taldearen emanaldiarekin, hain zuzen. Hau 17:00etan izango da.

3 gunea

Perlak

Egurra ta Kitto

Beñat Igerabide

Oihan Vega

Errebal

Trini Fox



Festaren bukaera, Berezaon

Kontzertu aipagarriak egingo dira Berezaoko gunean, irailaren 24an. Han emango zaio bukaera egunari, Willis Drumond talde baionarraren eskutik. Askotariko musika doinuez gozatu ahal izango da bertan. Joseba Irazoki, Huntza, edo Arkada Social dira bertan joko du

Berezao auzoko Santa Lutzia gunean kokatuko da Kilometroak 2017ko laugarren gune nagusia. Ibilbidea plazan hasiko dute herritar eta bisitariek eta plazako gunea, San Martingoa eta Asentziokoa igaro ondoren, Berezaora iritsiko dira. Gune honetan emango zaio bukera egunari, bertan egingo baita eguneko azken ekintza, 17:30ean hasita. Bereziki gazteei zuzendutako gunea da laugarrena, haien gustuko musika taldeek joko baitute bertan irailaren 24an. Askotariko estiloko taldeak dira bertan ikusgai egongo direnak, gainera. Punk, rock eta trikiti doinuak, Euskal Herriko musika eszenan punta-puntan dauden taldeak.

Goizeko hamaiketan hasiko dira Berezaoko Santa Lutzia gunean ekintzak. Ordu horretan, Erronkako probekin hasiko dira Euskal Herri osotik etorriko diren DBHko gazteak. Handik ordu erdira, Herri Kirol erakustaldia hasiko da Natran eta 11:45ean, Joseba Irazoki musikari ezagunak kontzertua egingo du. Ez da bakarrik egongo, Joseba Irazokik eta Lagunak egingo baitute kontzertua. 13:00etan Erronkako beste proba batekin gozatzeko aukera egongo da, eta 13:30ean, Oñatiko Sharon Stoner taldearen rock doinuek hartuko dute Oñatiko auzoa. Atseden hartzeko tarterik barik, 14:30ean, Arkada Social taldea igoko da taula gainera. 1997an Arrasaten sortu zen Arcada Social eta beti egin duen moduan, punk-rock doinuak eskainiko dizkio irailaren 24an ikus-entzuleari. Erronkako hirugarren proba bat ere egingo da gune horretan, 15:15ean, eta ordu laurden geroago, 15:30ean, beste oñatiar batzuen txanda etorriko da: Herstura taldearena, hain zuzen ere. 2016ko abenduan grabatutako eta oraingo urte hasieran argitaratutako *Metamorfobia* diskoko abestiez gozatzeko aukera eskainiko diote ikusleari, besteak beste.

Rock eta punk doinuez gain, baina, egongo da bestelakoez gozatzeko aukerarik ere Berezaon. Izan ere, trikiti doinuek hartuko dute protagonismoa 16:30etatik aurrera. 2014an, Bilbon, unibertsitate giroan sortu, eta harrezkero sekulako arrakasta lortu duen Huntza taldea igoko da eszenatokira ordu horretan. Horiek guztiak gutxi ez, eta Huntzaren ordu beteko saioaren ostean, Willis Drumond-en txanda izango da. Hain justu ere, Baionako talde ezagunaren rock doinuek izango dute egitarauari agurra emateko ardura.

Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa

Egun berean ospatuta, Kilometroak 2017k eta txakur txapelketak bat egitea adostu dute. Hala, zirkuituan barrena doazenek, artzainen abileziak gertutik ikusteko aukera izango dute San Lutziako zelaian, doan.

Kilometroak 2017k eta Nazioarteko 58. Artzain Txakur txapelketak bat egingo dute irailaren 24an. Egun berean bi ekitaldi potolo, eta, batak bestea ez zapaltze aldera, eskutik joatea erabaki dute. Batak bestearengandik "aberasteko eta elikatzeko" asmoa dauka. Hori horrela, punta-puntako artzainak batzen dituen txapelketa, Kilometroetako ibilbidearen bigarren gunean bateratu dute. San Martingo gunean integratu dute. "Guretzat erakusleiho polita izango da. Inoiz txapelketa ikusi ez dutenek edo txapelketa ezagutzen ez dutenek artzainen lana ezagutzeko aukera izango dute. Bereziki, gazteengana heldu gurako genuke", esan dute txapelketako antolatzaileek.

Zirkuituan sartu eta bigarren gunera heltzen den edonork izango du txapelketa ikusteko aukera. Eta, doan gainera. Hori da aurtengo berrikuntza nagusiena. "Azpiegitura aldetik oso zaila zen txapelketa eta ikastolen jaia bereiztea, eta, sarreratan kontrola egitea. Horregatik, aurten, ez dugu sarrerarik kobratuko", esan dute.

Bi ariketa

Euskal Herriko, Mallorkako, Kataluniako eta Iparraldeko artzainak eta txakurrak egongo dira Oñatin. Guztiak ere, aurretik ospatutako beste txapelketa batzuk irabazi ostean. Eta, bi ariketa egin beharko dituzte: lehenengoan, aurretik zehaztutako ibilbide batean ibili eta epaimahaiak aukeratutako hesi-tartetik pasa beharko dute. Bigarrenean, artaldea hartu eta zelai erdian dagoen eskortan sartu beharko dute.

1955. urtetik

Euskal Herrian, araututako artzain txakurren txapelketak 1955 urtean hasi ziren Oñatin. Mendizale oñatiar batzuk, euskal goi larretan txakur haiek erakusten zuten trebeziaz ohartuta, eta Katalunian honelako lehiaketak bazirela jakinda, lehen txapelketa antolatzen ausartu ziren. 1961etik 1967ra, bost urteko etena izan zuen. Ordutik, urtero ospatu izan da.

Iaz, Behe Nafarroara eraman zuten txapela Marcel Hualdek eta *Etxe* txakurrak. Bigarren sailkatu ziren Pascal Cacheux eta *Lyn* txakurra.

KLIK METROAK

METROAK BABESTUZ LAGUNDU IKASTOLAK

KLIKmetroak ekimenaren zazpigarren edizioa izango da aurtengoa. Hain zuzen ere, 2011. urtean jaio zen, Azpeitiako Ikasberri ikastolak antolaturiko Kilometroak jaian. Gipuzkoa mailan burutzen den Internet bidezko ekimen nagusienetariko da, eta euskara hutsean burutzen den sareko ekimen esanguratsuenetarikoa. Hain zuzen ere, bere sortze urtean, 2011n, publizitate arloko Argia saria jaso zuen, egindako lana aitortuz eta proiektuaren izaera berritzailea azpimarratuz.

KLIKmetroak ekimenaren helburua aurtengo zirkuitu birtualari ahalik eta bira gehien ematea da. Horretarako, ezinbestekoa da milaka pertsonen parte hartzea eta metro horien babesleak lortzea. Bisitari bakoitzak metro bat egin ahal izango du, eta hala, zenbat eta jende gehiagok parte hartu, orduan eta itzuli gehiago emango zaizkio zirkuitu birtualari. Bisitariek egindako metro bakoitzeko babesleek ekarpen ekonomikoa egingo dute Kilometroak jaiaren alde.

klikmetroak.kilometroak.eus

Aurten 6.395 metro izango ditu zirkuitu birtualaren bira batek. Erraza eta bi minutu besterik ez dira behar. Hemen dituzue jarraitu beharreko pausuak:

1. klikmetroak.kilometroak.eus webgunean sartu
2. EGIN ZURE METROA botoi berdearen gainean klik egin
3. Pantailan azaltzen den galdetegia bete: zure e-mail helbidea, izen eta abizenak, argazki bat eta Kilometroak-en aldeko mezu labur bat idatzi. Bukatzeko, EGIN ZURE METROA botoiaren gainean klik egin.
4. Zure posta helbidera KLIKMETROAK-en izenean mezu bat iritsiko zaizu metroa konfirmatzeko. E-maila zabaldu eta bertan azaltzen den link-aren gainean klik egin eta zure ekarpena eginda gelditzen da!

Metroak egitea DOAKOA da eta zure posta helbidea ez diogu inori emango. Ez duzu propagandarik jasoko.

Klik eginez, lagundu ikastolak!!

ORAINEUSKARA

Euskarak behar duen indar ufada zara. Har ezazu hitza, hauspotu gure hizkuntza. Ekin, tira ta bultza. Senti dezan euskarak gure hatsa, eta har dezan arnasa.

Euskaraz gatoz! Eta goaz. Gipuzkoarron mila eztarrik batera, lekaixo edo oihu berbera. Izan dezan geroak ere, euskararen beroa.

gipuzkoa.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ERAIKIZ

agurra

Mikel Egibar Ikastolen Elkarteko koordinatzailea

Zertarako antolatzen da Kilometroak?

Galdera erraza egiteko; ez hain sinplea erantzuteko. Jai honetara etortzen den jendeari zergatik parte hartzen ote duen galdetzen bazaio, ez dago zalantzarik: adina aldagai garrantzitsua da. Adina aurrera joan ahala, jendeak iraganeko borroka eta elkartasunarekin lotzeko joera handia izaten du. Adina behera doan neurrian, jaiaz disfrutatzea eta ondo pasatzea bihurtzen da motibazio orokorra.

Nazio batek bere Euskal Hezkuntza sistema behar du. Herriak bere garapenerako bere hizkuntza, historia eta jakinduriaren hedapenaren jabea izan behar du, eta horretarako jendarteak estamentu ezberdinak indartu behar ditu, horien artean berezko Nazio Hezkuntza sistema.

Gure Nazioa zatiketa administratiboan murgilduta bizi da eta zatiketa honen gainetik egiten den guztia herritarren iniziatibaz sortu, garatu eta burutu egiten da. Ikastolen mugimendua adibide aberasgarria da. Hasieratik gune eta ekimen txikietatik piztu bazen ere, euskara oinarria izan zuen hezkuntza sistema antolatzeko sarea garatzen joan zen. Euskal Herriko herrialde guztietan hedatua dagoen antolakuntza da eta gaur egun inoiz baino gehiago naziotasuna iparorratza bilakatu da. Ikastolak kooperatibismoan sinisten du eta egituraketa parte hartzaile eta demokratiko hori ikastola txikietan ere ezarrita dauka. Horregatik diogu: Ikastolen mugimendua Euskal Herriak duen hezkuntza sare publiko nazional bakarra da.

Euskal Herri osorako Hezkuntza legea landu eta adostu behar dugu. Azken hilabete hauetan eragile anitzekin egiten ari garen lanaren bidez dinamika berria piztu da, baina dinamikak helmuga batera eraman behar dira eta hori izango da aurrerantzean dugun erronka garrantzitsua.

Hori da, beraz, Oñatira etortzerakoan jendeari eskatzen diogun konpromisoa: lekaixoka Euskal Herri osorako Hezkuntza Sistema aldarrikatzea. Adina gora, adina behera, bakoitzak bere motibazioa errespetatuz, denok bat egin dezagun gure nazioak bere etorkizunerako garatu behar duen Hezkuntza nazionala, bateratua eta euskalduna lortzeko.

LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI
irailak 24

Kutxa Fundazioan euskara bizi dugulako

Elkartasuna, Kultura, hezkuntza, zientzia, ingurumena, aisia... Era guztietako adierazpenak euskaraz bultzatzea gure gizarte-konpromisoaren parte delako.

Irailak 24. Oñati

LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI

kutxa
FUNDAZIOA

www.kutxa.eus

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

aurretik doan unibertsitatea

UNIBERTSITATE GRADUAK

INGENIARITZAK

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA

EKINTZAILETZA

HEZKUNTZA

ENPRESA KUDEAKETA

GASTRONOMIA

www.mondragon.edu/prest